



Euskal sega selekzioa osatzeko 1. kanporaketa

TOLOSA ▶ Iurreamendin Europako Txapelketara joango den selekzioa osatzeko saioa izango da igandean

LANA ▶ Gizonezkoek 100 metro kuadroko saila ebaki behar dute, emakumezkoek, aldiz, 35ekoa ▶ 6

PATXI ZABALETA ▶ NAFARROA BAI

«PSNren erabakia erantzukizunik gabekoa da»

NaBai-ren jarreraz mintzatu da leitzarra ▶ 7

Kirol aukera zabala antolatu dute udako Usabal kiroldegian

TOLOSA ▶ Kanpoko igerilekua etzi irekiko dute; haurrak dinamizatzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte, gehienak Usabalen ▶ 2



Iaz egin zuten ikastaroa. N.L.

ALEGIA ▶

Esgrima, aerobic eta piraguismo ikastaroak uda honetan

Izena emateko azken eguna etzi izango da Kultur Etxean ▶ 5



E. EZEIZA

LEITZA ▶

Odol-emaileei buruzko hitzaldia antolatu dute gaur Aurreran

Helburua eskualdean odol-emaile talde finko bat sortzea izanen da ▶ 7

BERASTEGI ▶

'Bota patsa' antzezlanak ikusgai Muñagorri

Larunbatean izango da 22:00etan ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

'Egunkaria'-ren kontrako ahozko epaiketa egingo dute

Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du onartu auzipetuen helegitea ▶ 3

POLITIKA ▶

Udalaren osaketaz hitz egiteko batzarra

Bihar 20:00etarako batzarre-
ra deitu du ezker abertzale-
ak. Bilera Kultur Etxean egin-
go dute, eta honako gaia jo-
rratuko da: Udalaren osake-
ta. Izan ere, larunbatean,
udaletxe guztietan gauzatu-
ko da kargu hartzea, eta To-
losako egoera zein den eta
emango diren ekimenak az-
tertuko dituzte.

KULTURA ▶

'Ariane' filma izango da ikusgai Zine-forumean

Bihar, zine-forumean
19:15ean eta 21:45ean Billy
Wilderen *Ariane* izango da
ikusgai. Filma Parisen dago
kokatua. Ariane da protago-
nista, biolontxelo-jole izan
nahi duen neska gaztea. Mai-
tasun arazoetan aditua den
detektibe pribatua du aita
eta Arianeekin orduak eta or-
duak igarotzen ditu ezkutuko
artxibategiak arakatzeko.
Neskatoak kasu horietako
batean parte hartzeko auke-
ra izango du.

KULTURA ▶

Uxola sariak banatuko dituzte gaur arratsaldean

Gaur, arratsaldeko seietan
hasita, Uxola sariak banatu-
ko dituzte Kultur Etxean. Ma-
kina bat gaztetxok idazteko
duten abilezia agerian uzte-
ko balio du sariketa honek.
Hizlauan zein poesian egiten
dituzte hauek beraien ida-
tziak. 21 urte betetzen ditu
aurten Estanislao Urruzola
Vitoria Uxola tolosarraren
omenezko literatur lehiaketa
honek.

KIROLAK ▶

Kirol eskaintza zabala prestatu dute uda honetarako Usabalen

Kanpoaldeko igerilekua etzi irekiko dute, hemen, inguruan biltzen diren haurrak dinamizatzeko ekintzak egingo dituzte



Etzi irekiko dute Usabalgo kanpoaldeko igerilekua. N. LATABURU

ESTI EZEIZA

Uda iristeko egun gutxi falta di-
renean, urtaro horretarako ki-
rol zerbitzu berezia antolatu
dute Tolosako Udalekoek, Usa-
bal kiroldegikoekin elkarlanean.
Andoni Imaz Kirol zinego-
tziak atzo, aurkezpenean azal-
du zuten bezala, jarduera
gehienak Usabal kiroldegian
gauzatuko dira. Izan ere, dago-
eneko 7.600 bazkide ditu ho-
nek.

Dagoeneko kanpoaldeko
igerilekuaren inguruko eguz-
kia hartzeko tokia zabalik
dago, hau 19:00ak arte egoten
da irekita. Hala ere, igerilekua
etzi zabalduko dute, eta iraila-
ren 15era arte egongo da ireki-
ta. Bestalde, joan den urtekoak
kontuan hartuta, futbol zelai-
aren erdia eguzkia hartzeko
utzi dute. Izan ere, Imazek
agertu zuten bezala, «iaz, hama-
bost egunetan edo, bero han-

dia egin zuten, eta igerileku-
aren ondoko belardia txiki-
geratu zen, horregatik, futbol
zelaiak ireki behar izan genuen,
eta aurten ere berdina egingo
dugu».

Asier Martin, Usabal kirolde-
giko kudeatzailearen esane-
tan, berrikuntzak ere egin di-
tuzte inguru hauetan. Alde ba-
tetik, itzalpea handitu dute,
bestetik, mahai gehiago jarri
dituzte jendea lasai egon da-
din. Gainera, bazkideak atzeko
atetik zuzenean igerilekura
sartu ahal izango dira, kirolde-
giaren barrualdetik igaro
gabe. Honez gain, kudeatzaile-
ak aipatu zuenez, eguzkia har-
tzeko tokiaren inguruan dabil-
tzen umeak dinamizatzeko
ekintza ezberdinak antolatuko
dituzte, horien artean, kirol ez-
berdinen txapelketak.

Kiroldegiaren lanak amaitze-
ko hirugarren fase bat falta da,
honetarako herritarren iritziaz

aztertzen ari dira Udaleko lan-
gile nahiz arkitektoak. «Hasiera
batean eguzkia hartzeko tokia
handitzeko asmoa genuen, bai-
na abenduan surf olatu artifi-
zialaren proiektua agertu zen,
ondoren hauteskundeak zeto-
zen, eta horregatik oraindik
erabakitzeke utzi genuen zer
egingo zen hor. Hala ere, uda
igar arte ez gara ezertan hasi-
ko» azaldu zuten Andoni Ima-
zek.

Aurreko lerroetan aipatu be-
zala, 7.600 bazkide ditu jada
Usabal kiroldegia, «hasieran
aurrikusitakoak baina gehia-
go». Hori dela eta, «bazkideei
kalitatea bermatzearen», irai-
letik aurrera, oraingoz gain,
Tolosakoak direnek bakarrik
egin ahal izango dute bazkide
txartela.

Eskaintza zabala

Haurrentzako nahiz heldune-
tzako ikastaro ugari antolatu
dituzte uda honetarako. Aurre-
ko urteetakoek gain, hau dau,
aerobic, pilates, igeriketa,
yoga, pilota, hipika, patinaia...
haurrentzako uda ludoteka
prestatu dute. Hemen, txango
ezberdinak egiteaz gain, kirol
ugaritan parte hartzeko aukera
izango dute haurrek. Bestalde,
helduentzat, ohiko ikastaro-
ekin batera, GAP (Gluteoak, ab-
domena eta hankak) eta kapo-
eirakoa ere izango dira. Kirol
zerbitzuaz gain, kiroldegiaren
goiko solairuan dagoen terra-
zan, musika emanaldiak izan-
go dira besteak beste.

TRIATLOIA ▶

Zalakain bosgarren izan da Zarauzko proban

Hurrengo hitzordua
Lekeition izango dute;
igandean distantzia
sprint-ean ariko dira

ERREDAKZIOA

Eguraldi nahasia izan zuten
aurreko larunbatean Zarauz-
ko XXI. Triatloian. Bero zaka-
rrearekin hasi bazuten ere
ekaitzarekin amaitu zuten
froga eta horrek gogorragoa
bilakatu zuten. 411 partaide
izan ziren guztira, eta horie-
tako 336 iritsi ziren helmuga-
ra. Burutu zuten distantzia
2.500m-82.5km-20.5km izan
zen (Iron Man erdia). Bertan
garaipena Eneko Llanos tria-
tloilari olinpikoak lortu zuten.
Tolosaldeko neska-mutilak
ordea aurre-aurtean ibili zi-
ren. Horrela, Egoitz Zalakain
(Kraff- Atletiko) 5. izan zen
4:12:02-ko denbora eginez,
eta 7. Aitor Tejeria (SM. La-
gunak) 4:17:39-ko denbora-
rekin. Biek ala biek sasoi-
ko daudela erakutsi dute eta
distantzia honi tamaina har-
tu diotela nabari da ezen
duela aste batzuk Elchen
(Espainia) jokatu zuten proba-
ko emaitza onak berretsi
bestetik ez baitituzte egin.

Igandean ere Euskadiko
zirkuituko beste proba bat
Donostian izan zuten. Bertan
distantzia sprint-ean 380
partaide izan ziren. Neske-
tan Itsaso Leunda (Garraitz
KE) 2. izan zen eta Alberto
Vaquero (Tolosaldeko TT) 17.
sailakatu zen. Luis Lasa (In-
dependiente) 59., Asier Saez
118. eta Iñaki Alijostes 183.
Asteburu honetan Lekeition
izango dute hitzordua, orain-
goan distantzia sprint-ean
lehiatuko dira.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko etxebizitza.

Egoera oso onean. Altzari eta guzti
dituela.

Anoeta. Berriki eraiki eta
kanpoaldera begira dagoen
etxebizitza salgai. Garajearekin eta
altzariz hornituta.

Anoeta. Hartzeko baserrian
90m2ko etxebizitza salgai.

Berritzeko.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza.

Egongela, sukaldea, bi bainugela,
terraza eta altzariz hornitua.

Ezinhobea.

Donostia. Mandasko duke kalean
etxebizitza salgai dago
atikoarekin. Prezio ezberdinak.

Eraberritua.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza.

Eraberritua. Plazaren inguruan.

Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru

logelakoa. Sartzeko moduan.

Legorreta. Ostalaritzako negozioia
salgai.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako
etxebizitza. 70 m2.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi
gelako etxebizitza, igogailuarekin
eta erabat berritua.

Tolosa. Zumalakarregi kalean,
lehenengo solairuan 105 m2ko

etxebizitza.


Tolosa. Pedro de Tolosa.

122 m2ko etxebizitza, garajea eta
trastelekua.

Tolosa. Berazubini, laugarren
solairuan eraberritutako
etxebizitza. Igogailu proiektua
onartuta.

Tolosa. Berazubi auzoan,
laugarren solairuan etxebizitza,
eraberritua.

Tolosa. Gernikako Arbolan,
35 m2ko merkataritzarako
lokala, 35 m2ko sotoarekin.



ZIZURKIL ▶ ASTE BERDEA



20 lagun inguruk hartu dute parte ibilaldietan

Erredakzioa ▶ Aste Berdeari amaiera emateko, aurreko igandean antolatu ziren bi ibilaldietan 20 lagun inguruk parte hartu zuten, «espero baino gutxiago», antolatzaleen esanetan. Eguraldiak ez zuen lagundu egun horretan, goizetik hasita euria egin baitzuen. Zizurkilgo elurzuloak,

karobiak eta sela-harriak bisitatu zituzten eta jolandakoek aprobetxatu zuten herriko ondarrari buruz zerbaite gehaigo jakiteko. Motzanean egitekoak ziren bazkaria, baina guztia bustita zegoenez, Zizurkil Gora jaitxi ziren eta betan egin ahal izan zuten bazkaria. HITZA

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

Auzitegi Nazionalak baieztatu du ahozko epaiketa egingo dela

Auzitegi espainiarrak defentsak aurkeztutako helegitea atzera bota du; ez du jakinarazi noiz hasiko den epaiketa

ERREDAKZIOA

Egunkariaren kontrako ahozko epaiketa egin egingo dela baieztatu du Espainiako Auzitegi Nazionalak, atzera bota duelako defentsak maiatzaren 7an auzitegiak ateratako autoren kontra sartutako helegitea. Ez du jakinarazi noiz hasiko den epaiketa. Martxelo Otañendi tolosarra, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria eta Txema Ezumendi daude auzipetuta. «Egiaz eta benetan, geu gara epaiketa honetako biktima bakarrak», esan zuten auzipetuek duela hilabete emandako prentsurrekoan.

Fiskalak kasua artxibatze eskatua zuen arren —«delitu frogarik ez dagoelako»—, Auzitegi Nazionalak Zigor Arloko 1. salak ahozko epaiketa egitea erabaki zuen duela hilabete pasatxo. Auzian ez dago akusazio partikularrik, eta herri akusazio gisa ari diren AVT eta Dignidad y Justicia elkarten

POLITIKA

Defentsako abokatuek: «Auzitegiaren erabakiak instrumentalizazio politikorako bideak zabaltzen ditu»

eskaerak aintzat hartu zituen salak. Bi orrialdeko auto baten bidez eman zuen erabakiaren berri.

Jose Mari Elosua eta Iñigo Iruin defentsa abokatuen ustez, maiatzaren 7ko autoak «zigor prozedura arautzen duen oinarri-oinarrizko printzipioen erabateko haustura dakar». Halaber, erabakiak Auzitegi Nazionalak berak ezarritako

aurrekariekin hausten duela iritzi diote abokatuek, eta auzitegiaren «erabaki kontraesan-korrektu ziurtasun juridiko falta areagotu» egiten dutela. Prozedura penalean Fiskaltzak duen «paper gutxitu», eta «interes partikularrak eta politikoki oso lerratuak» defenditzen dituzten eta herri akusazio gisa diharduten elkarteena «handitu» egiten du erabakiak, gaineratu dute. «instrumentalizazio politikorako bideak zabalduz».

Tolosako Udala

IRAKARRIA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrek, 2007ko maiatzaren 21ean egindako bilan, onespena eman zion E.Z.7 "Gorosti-Voith" eremuko 23. Egikaritze Unitateko Hirigintzako Egikaritzapen Hitzarmenari, LARRAMENDI MADALEAN PROMOTIOAK, S.L.k aurkeztuari.

Onespene hau Urbanizatze Jarduketako Programaren behin betiko onspenari baldintzaturik geratzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedienteak 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Tolosan, 2007ko ekainaren 11n.
ALKATEA

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 11 behean - TOLOSAN
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

ALKIZA ▶

Erdigunean errepidea itxita obrak direla eta

Alkizako Udalak ohartarazi duenez, gaur erdigunean lorontziak jartzen hasiko dira. Obra horiek direla eta, erdigunean errepidea itxita egongo dela azaldu du Udalak eta beraz ez erabiltzeko gomendioa luzatu du.

ANOETA ▶

Udan kirol jarduerak egiteko aukera

Udan kirol jarduerak egiteko hainbat aukera dituzte anoetarrek. Hain zuzen, 1991 eta 1998 urte bitartean jaio direnek hipika, surf, xakea, igeriketa, naturako jarduerak, jarduerak anitzak eta aerobik-batuka egin ahal izango dute gazte horiek. Jarduera batzuk Anoetan izango dira eta beste batzuk herritik kanpo. Izena kiroldegian eman daiteke eta etzi da azken eguna horretarako. Matrikula kontu korrontetik kobratuko diete partaideei. Murrizpenak izango dituzte familia ugariako kideek, gazte txartela dutenek eta diru-sarrera baxuak dituztenek.

ANOETA ▶

Udaleku irekiak antolatu dituzte uztaileko

Anoetako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko. Jokuak, kirolak, eskulana, irteerak... egiteko aukera izango dute Lehen Hezkuntzakoek. Uztailearen 2tik 13ra, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara izango da. 52 euro balio du matrikulak eta etzi amaitzen da izena emateko epea. Bestalde, Udalak begiraleak behar ditu udaleku irekientzako. Etzi da ere azken eguna izena emateko.

VILLABONA ▶

Oinkariren saiorako sarrerak salgai

Datorren larunbatean Villabonako Oinkari dantza taldeak aurkeztuko duen *Aspaldikotik* emanaldiko sarrerak jada salgai daude. Sarrerak 5 euroko prezioa dute eta Villabonako Olaederra kiroldegian eskura daitezke ondoko ordutegian: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbatean, berriz, 11:00etatik aurrera egun guztian egongo dira salgai.

VILLABONA ▶

Txosna batzordea etzi bilduko da gela balioanitzean

Santio festak gerturatzeko doaz eta horrekin batera festen inguruko bilera egiten hasi dira. Esaterako, etzi, ostirala, balioanitzeko gela txosna batzordeak bilera egingo du. 18:30erako egin dute deialdia.

VILLABONA ▶

Errebote partidarako autobusa

Behar-Zana elkarterako errebote taldeak datorren igandean, hilaren 17an, Euskal Herriko Txapelketaren finalerdia jokatu du Hazparren, 10:30ean, Amikuze (Donapaleu) taldearen aurka. Behar-Zana elkarterak antolatu duen autobusean joan nahi dutenek izena eman dezakete elkarterean egoitzan edo 661 285 041 (Andoni) eta 943 69 00 42 (Pablo) zenbakietan. Irteera 08:30ean izango da Olaederra ondokit.

GOIERRITARRA aldizkariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN

ERREFERENTZIA:07-KOG

Eskaintzen da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Goerri bertan edo inguruan bizitzea.
- Goerri inguruk ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA Ez ahaztu erreferentzia zehatzea

TOLOSA ▶ KULTURA

'Ahots bidaztiak' Leidorrera iritsiko dira

Etzi herritarren parte-hartzea sustatzen duen musika, olerki, antzerki, elkarrizketa, ipuin eta dantza emanaldia



Alegian egindako saioan arrakasta izela izan zuen Ahots Bidaztiak emanaldia. EGUSARRO ARRIET

Jaja Laia eta berriaren eskutik **Fermin Muguruzak** prestatutako musika bilduma bikaina

'Musika Munduko Jolastokian'

Maiatzaren Setik aurrera larunbatero disko bat kioskoan + 5,30 €

ALBEPH OZZOLA, BIZI OUSKARTE, **berria**

ERREDAKZIOA

'Ahots Bidaztiak' proiektua Tolosa Leidor aretoan aurkeztuko dute etzi, 22:00etan. Bertan, Irati eta Ekaitz Goikoetxea anaien arteko zuzentzen duten emanaldia izango da, baina ez dira bakarrik, herritarren parte-hartzea sustatzen baitute, eta musika, olerki, ipuina, elkarrizketa, dantza eta antzerkia lantzen dituen proiektu honetan hainbat tolosarrek hartuko dute parte. Irati Meazquita gitarrarekin jolesgaria berria.

Leidor aretoan emanaldia doakoa izango da: «Ireki den emanaldia da, haur, gazte zintz helduei zuzendutakoa», adierazi du Irati Goikoetxea beasaindarrek. Anaien arteko esan bezala, ez dute kultur

ikuskin bat bakarrik egin nahi, kultur parte-hartzailea baizik: «Bertara joaten direnek kanturako aukera izango dute, eta baita hausartzeko ere».

Lizardiri emanaldia ere bai

Alegian ere saioa egin zuten maiatzean eta oso harrera ona izan zuen emanaldia: bertan, 40 lagunekin gora parte hartu zuten eta «erantzun oso ona» izan zuten, ikusle kopurua ikustea besterik ez da. 250 lagun-dik gora, Tolosaikoa ere bertako jendeak parte hartzen du: «Laskoaingo, Hirukide-Eko-logioko eta Orreko institutuko ikasleak izango dira, Udaberri dantza taldea, Udai Musika eskola eta bi txalapartari». Hauenkin harremana lotzeko Gal-

tzaurdi euskara taldea arduratu da, eta antolatzale nagusia da: babeslea, berriz, Tolosako Udala izan da.

Beti tokian tokiko serbaitekin lotzen dute emanaldia, eta kasu honetan, Xabier Lizardiriaren egungo dute: «Irekiten lotuta olerki saio bat egingo dugu; hari egindako emanaldi bat bezala ulertu daiteke».

Emanaldian lantzen dituzten gaiak, emakumea, tratu txarrak, euskara, Euskal Herria, etorriak, natura edota bizitzaren bera dira. Guztia, hainbat egitaratan aurkeztuta. Beteen artean, Diego Riaño eta Aitor Lizardiri antzozten ariko dira, eta Lore Oiarbide abeslaria kantatzen. Eskualdeko jendea, berriz, izango da etzi Leidor areto-ko eszenatokian protagonista nagusia.

GUTUNEK ▶

Ederra izan zuan, Alegia!

Ordiariaren orratzak geldituzkeri balez, zuen indarra, gogoa eta lasoa erabiltzeko gaituzkeri denbora ostial gaueraino zuzenduz. Berotasunez izozteko. Guk luzarora emanango dugu zuekin batera sentituko, hizi eta tortu dugun gutia. Alegia mugimenduan sumatu dugu, eta hori zuek lortu du zuek.

Taula gaineko hunkigarria, zirraragarria eta aberastua izan bazen ere, atzeko lan guztiak bete gaitu bidez ere. Alegiara egindako joan etorriek, solasaldi eta prestatzeko, estuturako hurreman eta lotura berriek, zuen prestutasunak.

Bi biolin tiki akordeoi dotore bakoiti solasean, baxua hakekin jolasen eta pianoa... pianoa magia iturri. Ixone, Unai urrutira iritsiko zarete! Ainhoa, Manex urrutira iritsi zarete! Aitor Itzola artista handia zara (Dabau egin nahi genuen, eta bai, esanatu genari!) Gustu handia izan da Aitor Zabala bi esagutzera, euskarak hurrek bezalako ahotsek behar dituzte! Aitor Nahoko lan izan genuen erratza nola astinduz asmatzen, baina, ederki egin zenuen azkenean! Berfak, Itxaki, Aitor Encinak, Iker, gura ere gustura egon zen antzeziana! «Ikusten! Lo-lo... umetxo! lo... ahots gozoa, ederra duzu Nere! Honen harira... Zer duk On Toribio, urduri jarri ai haiz?... Maisoi segi izan lanare! Unai, Edurne, mundialak zarete! Ai Iker, Iker, ez haiz basajauune, ez haiz jentile, baino... izan

nahi ai duk nere mutile? Gari, hire kottura ezkontza pres-taketak! Muxu handi bat boi! Olatz, Madri, Amia, Lierri, Irati, Ainhoa, Maitxe, Ainhoa, orandik bizirik daude Alegian! Ahotsek dantzan, sorgin-ekin egin jarri zenuen Eider, Mirari, eskerrik asko! Zirrargarria izan da olerkia dantzan jartzea, ahotzari mugimendua lotze, Unue, Aiena, Nora, zoragarria izan da egin duzun sormen-lana. Bia Urepeleira egindako bidai? Dromin, Mei Mari, Maitxe, Nekane, Sabina, Gabino, Garbiete, Olatz, Elena, Ana, Xabier Garmendia, Milla, Aine, Xefe, Jose Mari, Arturo, Juancho, Jon, Ana Mari, Ixone, Arantxa, Gotzone, Xabier Mingo eta Patxi, Xalbadoren heriotza izan baino bizitza sentituko ginen. Garbiete, ederki gidatu gintuzten mendu hesietan gora orotzapepen ondora.

Lotu beharreko horrenbeste hari solet... Montika, Maria, Agurte, izugarria izan egin duzue. Eduardo, Antton, Igor, to bostekoa. Aita, nola eskertu egiten duzun guti?

Loatzo Musika-eskolari, Dantza-taldeari, San Juan Herri-Itzastetxeari eta Aralar Institutuari, Txintxarri Abeslari-tzari eta Gaztetxeari, eskerrik asko! Milla esker Alegiko Kultur Batzordeari, proiektu koloretu eta parte-hartzaile botan sinestegaitik.

Kultur gizona, euskalgintza egia, bizitza eta aberasteko modua da, berri bat ibiltzen jar-tzea. Alegia, plazer bat izan da. Bejondeizuela denon! Biho-tzak, eskerrik asko!

IRATI ETA EKAITZ GOIKOETXEA ▶ AHOZ BIDAZTIAK TALDEKO PARTIDAKOAK

ALEGIA ▶ IKASTAROAK

Esgrima, aerobic eta piragismo ikastaroak

Etzi arte eman daitezke izena Kultur Etxean



Esgrimako ikastaroa uztailaren 9tik 13ra bitarte izango da. irika

ERREDAKZIOA

Alegiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, hainbat ikastaro egin ahaliko dira uda kanpamentu esgrima, aerobic eta piragismoan, hain zuzen ere Batetik, esgrima uz-tailaren 9tik 13ra eskainiko dute 10:30etik 13:30era, eta 12 euro ordaindu beharko dira.

Aerobic-ikastaroa, berriz, uz-tailaren 2tik 13ra antolatu dute, eta 11:15etik 12:15era

izango da. Ikastaro honetarako ere 12 euro ordaindu beharko dira.

Piragismoari dagokionez, uz-tailaren 9tik 13ra emango dute. 15:00etik 16:30era, 18 euro ordaindu beharko dira. Ikastaro guztiak 8 eta 16 urte bitartekoentzat daude zuzenduta, eta inon-emaitek Inazio Begiristain Kultur etza kirol etxean egin ahaliko dira hila-ren 15era arte. 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:30era.

DATUAK ▶

Emanaldia, Ahots Bidaztiak.
Eguna: Irailak 15, ostirala, Orduak, 22:00etan.
Herria, Tolosa.
Tokia, Leidor aretoa.
Prezioa, Don.
Ezarguztariak, Literatura, musika, poesia, antzerkia, elkarrizketak, dantza...
ekitaldi koloretu eta parte-hartzailea.

IV. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

Beotibar pilotalekuan seniorren finalerdiak

Aurrera-Saizako bi pilotari ariko dira eta infantilen arteko finalean, eskualdeko bat

NEREA URIBU

Gaur HITZA Pilota Txapelketa finalerdiak jokoan dira Beotibarren. 19:30ean hasiko dira bi neurbitak senior mailan, eta lehenengo partidari Amategi Iza eta Ongai E. Galarraga izango dira, ados jokalari hiru Aurrera-Saizakoa. Partida haseki goporrak izango dira, beti bezala. HITZA Txapelketan dibalazio senorietara pasatzen baitira. Bigarrenetan ere Aurrera-Saizako Aspe ariko da Diez-ekin batera, eta aurkariak Larraga-Tellexe (Aurrera-Saizakoa) izango dira. Lau bikote hauek irabazleak finaleran izango dira.



Infantilen arteko Adunan, k. u.

Etzi jubentziak Berastegin

Etzi, berriz, 19:00etan jubentzen norgehiagokak izango dira, bi finalerdiak ere Bertan, Eakudero-Sagasetia eta Oiar-

zabal-Agiriario ariko dira lehenik, eta ondoren, Albarado-Berrieta eta Galarr-L. Gobarra. Jubentzen artean aurtur ez dago eskualdeko jokalaririk.

Infantilen arteko finala jada erabakita dago: Gallurde-Goitia eta Azketa-Gabirondo, hain zuzen. Adunan beren-egun azken bikote leona-karre! 18-9 irabazi ondoren.

...ere erera baleibu izik subua aruaren...

Tabacalera Donostia

Erakuslela - Proiektzioa 2007ko ekainak 15 - urtialak 15 Astozkenerdik igandera

11:00h - 13:00h / 17:00h - 21:00h

Tel: 34 943 011 311
www.tabacalera.es
info@tabacalera.es

Filaren proiektzioak: ekainak 23 / 24 iraila, 20:00h Victoria Eugenia Antzokia

CCCC, eith, ELIZABURUAKO

/ Filma / La película / The film / Le film / Sistiaga 1968/70

TOLOSA ▶ KIROLAK

Euskal sega selekzioa osatzeko lehen kanporaketa lehia

Larunbatean Europako Txapelketara joango den selekzioa osatzeko lehen saioa jokatu da lurreamendiko zelaietan



Neurri ezberdineko segekin lehiatzea libre izango da, Europako Txapelketako moduan. HITZA

ASIER IMAZ

Nazioarteko erako III. Euskal Herriko Sega Txapelketaren lehen kanporaketa larunbatean jokatu dute 18:00etan Tolosako Iurreamendiko zelaietan. Bigarren kanporaketa, berriz, hilaren 24ean, Olaberrian jokatu dute. Kanporaketen helburua Europako Txapelketan parte hartuko duen Euskal Herriko selekzioa osatzea izango da.

Bi lehietatik hamar gizonezko hautatu dituzte, eta horietatik hiru, 31 urtetik gorakoak izango dira. Emakumezkoei dagokienez, bost segalari aukeratu dituzte, eta horietako bat 31 urtetik gorakoa izango

da. Nahiz Tolosako saioan nahiz Olaberrikoan, gizonezkoek 100 metro kuadroko saila ebaki beharko dute eta emakumezkoek 35 metro kuadrokoa. Nahi den neurriko sega erabili ahal izango da, sega librekoa izango baita txapelketa. Hala, ebakeraren txukuntasuna eta abiadura hartuko dituzte aintzat epaileek.

Europako Txapelketa

Abuztuaren hirugarren asteburuan, taldekako nazioarteko erako Europako Txapelketa jokatu dute Austriar. Euskal selekzioa osatzeko hautaketa ekitaldiak Gipuzkoakoan jokatuko dira eta segalariek bi

saiotan parte hartu beharko dute. Bakarrean parte hartu nahi duenak, ezin izango du Austriara joango den euskal selekzioan egon. Segalari guztiek jasoko dute orogarriren bat, hots, 30 euroko dieta, egunean partu hartu zuteneko pergamino eta txapelketako lehen hiru sailkatuek Almitza Sega Elkartearen ikurra. Txapeldunek txapela ere jasoko dute.

Tolosan eta Olaberrian ariko diren epaileak Almitza Elkartekoak eta Gipuzkoako Federazioakoak izango dira. Bestalde, segalariren batek Austriar jokatuko den Txapelketarako sailkatzea lortuko balu, baina joateko aukerarik izango ez balu, bere lekua sailkapeneko hurrengo sailkatuak hartuko luke.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. ETAk su-eten iraunkorra hautsizat eman du. 440 egun iraun du, izan ere, pasa den urteko marboaren 22an iragarri zuen su-etena. Zer hausnarketa egiten duzu gaiaren inguruan? Sartu eztabaida gunean eta eman zure iritzia. ▶

BERASTEGI ▶ KULTURA

'Bota Patsa!' antzezlanaren Muñagorri ikastetxean

Aldin kultur eta kirol elkarteak antolatatu du eta larunbatean 22:00etan izango da



Joseba Usabiaga eta Iker Galartza tolosarrak dira interpreteak. HITZA

A. IMAZ

Aldin kultur eta kirol elkarteak antzerki emanaldia antolatatu du larunbaterako. Txalo produkzioaren eskutik, *Bota Patsa!* lana ikusteko aukera izango da Muñagorri Ikastetxeko jolasgelan, 22:00etatik aurrera. Joseba Usabiaga, Goenkaleko *Tximista* eta Iker Galartza aktoreak parte hartzen dute *Bota Patsa!* antzezlanetan. «Bizitzan edozer lortzeko izerdia bota beharra dago». Horrela laburbiltzen du Usabiaga aktore tolosarrak. Galartza aktore tolosarrarekin batera idatzi eta interpretatzen duen *Bota patsa!* antzezlanaren.

Aurretik egindako *Errelebo* obra bezala, komedia kutsukoa da hau ere. *Errelebo*

antzezlan arrakastatsuen ondoren, bi aktoreek elkarlanean jarraitzea erabaki zuten.

Izerdia izanik obrari izena ematen diona, gimnasio batean kokatu dute istorioa. Artista izan nahi duen ikasle bat eta enpresario bat elkartzen dira bertan eta bata besteari etorkizunerako asmoak esaten dizkio. «Bizitzan zerbait lortzeko ekintzailea izan behar zareda da mezua, izerdia, patsa bota behar dela», azaltzen du Usabiagak.

Mezu hori komediarekin uztartzen dute, bi aktore tolosar hauei ondo egokitzen zaien generoa. «Nik uste dut joaten direnak ondo pasatuko dutela», dio Usabiagak. «*Errelebo* gustuko izan zutenek, *Bota patsa!* ere gustuko izango dute», gaineratzen du.

KULTURA ▶

Ipuin kontalaria Gaztelun eta Leaburun, gaur

Galtzaundi Euskara Taldeak jakin arazi duenez, Idoia Sanchez ipuin kontalariak emanaldiak eskainiko ditu gaur Leaburu-Txaraman eta Gaztelun. Idoia Sanchezek bi saio eskainiko ditu, lehena Leaburuko Udal liburutegian eskainiko du, 17:15ean. Bigarrena, berriz, Gaztelun izango da, hau ere gaur burutuko da, izan ere, lehen saioa bukatu ondoren Idoia Sanchez Gazteluko Udal aretora joango da, 18:30ean bigarren ipuin kontaketa ekitaldia eskaintzera.

UDALEKUAK ▶

Udaleko irekietan parte hartzeko deialdia

Uli Mankomunitateak udaleku irekiak antolatatu ditu uztailaren 2tik 30era, Leaburu-Txaraman, Belauntzan, Gaztelun eta Orexan. Bertan jolasak, eskulanak eta irteerak egingo direla jakin arazi dute eta izena emateko epea hilaren 20an amaituko dela gaineratu dute. Horretarako 943 68 22 28 telefono zenbakia zabaldu dute, «ez bagaude mezua utzi behar da». Lurdotean parte hartzeko ezinbestekoa da haurren datuak eta zein udaleku irekietan parte hartu nahi duen esatea.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Alegin 2 logelako etxebizitza polita salgai, erabat berritua, 2 bainulekin. 36.000.000 pezeta. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 669 827 096.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan. 3 logela, egongela, 2 bainugela eta trastelekuarekin.

Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. Ikuspegi ederrak. 44.000.000 pezeta. Deitu 626 75 27 44ra.

LANA

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da kafetegi batean lan egiteko. Esperientzia. Igandeak eta jai egunak libre. 943 67 04 46.

Ileapaintzailea. Esperientziadun ileapaintzailea behar da Anoetan. Kontratua eskaintzen da. 943 65 35 29.

BESTELAKOAK

Pultsera. Alkizan urrezko pultsera txikia agertu da. Lierni izena duena. 943 69 37 31.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Odol-emaile talde bat, Iruran. HITZA

Odol-emaileak mintzagai gaur Aurreran

Eskualdean odol-emaile talde finko bat sortzea izanen du helburu hitzaldiak

NAIARA GARZIA

Gaur odol-emaileen inguruko hitzaldia egingen dute 17:00etan Aurreran. Bertan Odol bankuko zuzendaria, Antonio Medarve eta Adona elkarteko idazkaria, Maria Otermin izanen dira.

Hitzaldiaren helburua eskualdean odol-emaile talde bat osatzea da. Orain arte Leitza eta inguruko herrietan dauden odol-emaileek Iruñera jo behar izaten dute odola ematera. Baina Paula Arburua leitzarrrak, Goizuetako Osasun Etxeko langileak azaldu duenez, «eskualdean talde bat osatuko bagenu, Iruñetik honera etorriko lirateke autobus batean eta

hartara jendearentzako erosoago izango litzateke». Arburuak adierazi duenez, «60 pertsona ingururekin nahikoa izango litzateke maiztasun batez odol-emaileen autobusa honera etortzeko».

Nafarroan odola soberan dago, baina beti erreserban gehiago izatearen beharra azpimarratzen dute adituek, ezusteko baten aurrean ezinbestekoa baita.

«Nahi duten guztiak izena eman ahaliko dute. Gero azterketa bat egingo zaie denei, eta hemendik talde bat osatuko dute. Herrietan askotan Iruñera ez joateagatik ez dute odolik ematen, eta hau irtenbide egokia da», dio Arburuak.

LEITZA ▶

'La buena nueva' filmaren grabaketa

Helena Taberna eta bere lantaldea berriro herrian dira *La buena nueva* filmaren beste zati batzuk filmatzeko. Atzo hasi eta ostiralera arte plazan grabatuko dute, baita Juanenea dendan ere. Hori dela eta, egun hauetan plazan eta plazaren inguruan ezingo da autotrik utzi. Hilaren 28an berriro itzuliko dira eta herrian filmatuko duten azken eguna izanen da.

LEITZA ▶

Zoladura konponketak amaitu dituzte

Atzo amaitu zituzten zoladura konpontzeko lanak. Osasun etxetik hasi eta Elbarren kalea, autotxokeetako aparkalekia eta Manuel Lasarteko zoladurak konpondu dituzte egun hauetan. Gainera, egun hauetan Nafarroako Gobernua herriko zeharbidia margotuko du.

LEITZA ▶

Igandean afaria egingen dute Basa-Kabin

Igandean herritarrentzako afaria izanen da Basa-Kabin. Pilotaren egun handia ospatzeko, Barriola eta Olaizolaren arteko norgehiagoka eta gero afaria egingen dute. Txartelak Gaztan eta Peritzan salgai jarri dituzte, 45 eurotan. Honela, Buruz Buruko Txapelketaren finala ospatzeko aitzakia ezin hobea izanen da. Irabazi edo galdu, hainbat herritar bilduko dira Basa-Kabin eta Abel Barriola ere han izanen da.

PATXI ZABALETA ▶ NABAI-REN ZERRENDABURUA

«PSNren erabakia erantzukizunik gabea da»

Patxi Zabaletak PSNk herenegun Iruñean hartutako erabakiaren inguruan bere iritzia eman du



LANDER FDEZ. ARROYABE/ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Patxi Zabaleta (Leitza, 1947) astelehenean PSNk Iruñeko alkatezari buruz hartutako erabakiaren inguruan mintzatu da.

PSNk Iruñean hartutako erabakia zer iruditzen zaizue?

PSNren erabakia erantzukizunik gabea da eta ez dio men egiten Iruñeko hautesleok esandakoari, eta uste dugu beraien aldetik huts egite handi bat dela. Horrek ez digu inolaz ere gure jarrera aldatuko.

Astelehenean Madrilen izandako bilerarekin zerikusirik izan al du erabaki honek?

Bilerak ez dira sekula ondorioz gabeak izaten, jakina bada. Bilerak ezizirik eta atzoko bilerak ezezik gertatu diren beste gauzak ere bai: su-etenaren

hausturak, orain dagoen egoera berriak... denak du zerikusia eta beharbada arrazoiak asko izanik ez da bat bakarra arrazoi osoa.

Nafarroako Gobernuaren osatzeko negoziaketetarako eragingo al die?

Gure betebeharra aldatetaren alde saiatzea eta lan egitea da eta hori egingo dugu ahal dugun neurrian.

Leitza hauteskundeetan Aralarrek izandako emaitza zer iruditzen zaizu?

Uste dut herriak erabakitakoa agerian dagoela eta guk errespetatu egiten dugu. Halere oso arto gaude Patxi Saenz eta bere taldeak eginiko kudeaketarekin eta ez dugu ahaztu behar Leitza Nafarroa Baik Parlamenturako hauteskundeak irabazi dituela.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 13a, asteazkena ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **22** hotzena **16**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(balantzak argizke, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Esgrima, aerobik eta piraguismo ikastaroak antolatu dituzte Alegian, 8 eta 16 urte artekoentzat. Izen-ematea, Kultur eta Kirol Etxean 15a baino lehen.
Ibarra. *Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia*, bizibidaia Benito Izagirre kultur etxean, 20.00etan, Bidai astea amaitzeko.
Tolosa. Uxola Sarien banaketa Kultur Etxean 18:00etan.
Tolosa. Urduña-Angulo mendatea (Araba) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).
Tolosa. Sakramentinoen mendeurrenaren barruan, argazki eta eliz-ontziteriaren erakusketa izango da ikusgai Sakramentinoetan.
Villabona. Moncayo mendira irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Moncayo mendigunera irteera, Aizkardiren eskutik

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarteak mendi irteera berri bat antolatu du igande honetarako, hilaren 17an. Moncayoko Gure Ama baseliza (1.300 m) izango dute, hain zuzen ere, abiapuntu mendizaleek, Zaragozako (Espainia) isurialdetik. Baseliza igaro ondoren, Moncayoko gailurra igoko dute, 2.316 metroko garaiera duena. Mendigunearan jaitsiera, berriz, Soriako (Espainia) isurialdetik egingo dute Cuevas de Agreda (1.296m.) izeneko herriraino.

Bertan amaitutzat emango dute, hain zuzen ere, irteera. 20 kilometro inguru dituen ibilbide hau burutzeko sei ordu inguru beharko dituztela aurreikusitako arduradunek. Izena eman nahi duenak 943 694458 zenbakian egin dezake (Joxanengandik galdetuz) edo Aizkardi mendi elkartearen egoitzan bertan, bihar izango delarik horretarako azken eguna. Igandean, berriz, goizeko 06:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. HITZA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen **txokoa**

Datorren **larunbatean**, ekainak 16, **22:30**ean Villabonako Olaederra kiroldegian **OINKARI** dantza taldeak **"ASPALDIKOTIK"** ikuskizuna aurkeztuko du.

Hitzako harpidedunen artean **bi harpidedunentzat bina sarrera** zozketatuko ditugu!

Zorte on eta adi egon!